



MINISTERIO  
DEL INTERIOR



## IBILGAILUEN ERREHABILITAZIOA

**GARRANTZITSUA:** Edozein buruzagitzatan izapidea egin baino lehen, aurretiko zita eskatu behar duzu.

- **Eskaera** inprimaki ofizialean. ([www.dgt.es orrialdean inprimaki eskuragarria](http://www.dgt.es/orrialdean/inprimaki/eskuragarria))
- **Tasa** 97,80 €ko zenbatekoa, ziklomotoreak izan ezik 27,30 €. (Ez dago eskudirutan ordaintzerik)
- **Interesdunaren identifikazioa:**
  - Pertsona fisikoak: titularraren nortasuna eta helbidea egiaztatzen duen dokumentu ofiziala (NAN, gida-baimena espainiarra, egoitzatxartela, pasaportea gehi Atzerritarren Identifikazio Zenbakia).
  - Pertsona juridikoak: elkartearen identifikazio fiskalaren txartela eta ordezkapena egiaztatzea eta sinatzen duenaren nortasuna ([Eredu eskuragarria www.dgt.es orrialdean](http://www.dgt.es/orrialdean))
  - Adingutxikoak edo ezgaituak: aita, ama edo tutorearen datuak eta sinadura, bere NAN.-a eta iharduten duten kontzeptua egiaztatzen duen dokumentua.
  - Eskatzaileak ibilgailuaren titularra ez bada, **jabetasunaren dokumentu egiaztatzailea** erantsiko du (kontratua igorlearen NANarekin; faktura enpresaren IFZ-arekin, dokumentu notariala,...)
  - Drogei buruzko Egitasmo Nazionalerako Gobernuaren Ordezkaritzak enkantean esleitutako ibilgailuaren kasuan, **esleipenaren akta edo ziurtagiriak** eskatzailea legezstatuko du errehabilitazioaren eskaera egiteko. (Suposamendu honen informazio zehatza [www.dgt.es](http://www.dgt.es))

*Behin dokumentazio hau aurkeztuta Trafikoko Buruzagitzak, hala balegokio, IIT-aren estaziora ofiziala igorriko du, ibilgailua azterketapean egon dadin. Behin azterketa gainditu eta gero, ondorengo dokumentuak aurkeztuko dira:*

- IIT estazioak horretarako luzatutako **IIT Txartela**.
- **Nekazaritzako ibilgailuek hau aurkeztu behar izango dute:** Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Makineriako Erregistro Ofizialean altako ziurtagiria, DGTren Ibilgailuen Erregistroan egiaztagiri telematikoa izan ezik.
- **Garraio-ziurtagiria:** autobusa edo 6 tona baino handiagoko BGMko eta 3,5 tona baino handiagoko zamarako salgaiak garraiatzeko ibilgailua bada, DGTren Ibilgailuen Erregistroan egiaztagiri telematikoa izan ezik.
- Ondare Eskualdakei buruzko Zergaren ordainketa/esentzioaren egiaztagiria ez bada faktura aurkezten eta errehabilitazioa eskatzen duen pertsona azken titularraren desberdina bada.
- Eskatzaileak helbidea duen Udaletxean Zirkulazio-Zergaren ordainketa/esentzioaren egiaztagiria.

**OHARRA:** *Izapidea titularrak aurkezten ez badu, honek sinatutako baimena eta bere NANa beharrezkoa izango dira, non doaneko izaera adieraziko den ([www.dgt.es-n](http://www.dgt.es-n) eredu eskuragarria).*

*Goian eskatutako daturen batek frogagiri fede-emailea ez badu, dokumentazio gehigarria eska daiteke.*

Eguneratua 2018/07/05